

**Covid-19ak haien egoera ekonomikoa larritu duen honetan**

**10.000 FAMILIAK BAINO GEHIAGOK 800.000  
MASKARA JASOKO DITUZTE, EROSKI-K  
DOHANTZAN EMANDA**

- **Elkartasun Txartelaren bitartez bideratuko du dohaintza, 70 gizarte erakundek darabiltena; nabarmentzekoak dira, besteak beste, Caritas eta Gurutze Gorria**
- **Erabili eta botatzeko maskaren prezioa 15 zentimotara jaitsi du EROSKI, eta erabili eta botatzeko kirurgikoena (haurrena barne) 40 zentimotan da.**

**Elorrio, 2020ko azaroaren 23a.-** [EROSKI](#)k 800.000 maskara emango dizkie dohaintzat 10.000 familiari; izan ere, Covid-19ak ekarri duen krisi ekonomikoa dela eta, lehen baino okerrago daude; hala, eskura izango dute babeserako eta segurtasunerako ezinbestekoa den elementu bat. *"Dohaintza honen bitartez, lehen mailako produktu bat eskura izango dute, noiz eta Eguberriak datozen honetan; izan ere, familiako eta gizarteko harremanak biderkatu egiten dira garai horretan, eta inoiz baino beharrezkoagoa izango da"*, esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak

Dohaintza bideratzeko, 70 bat erakunde publikoren eta gizarte erakunderen laguntza izango du; esaterako, Gurutze Gorriarena eta Caritasena; bestelako elkartasun proiektuetan ere horiekin aritu ohi da lehendik ere. *"Ekintza honek unean uneko beharretara egokitzen lagunduko digu, zailtasun ekonomiko larriak dituztenek eskura izango baitute maskara"*, esan du Caritasek Bizkaian duen zuzendariak, Carlos Bargosek.

Dohaintza bideratzeko bitartekoetako bat Elkartasun Txartela izango da; helburu sozialetarako erosketak egiteko txartel bat da, modua ematen duena larri dabilzan herritarrei eta familiei administrazioaren eta gizarte erakundeen laguntza bideratzeko. Dagoeneko, lurralde hauetako 70 administrazioek baino gehiagok darabilte zerbitzu hori EAEn, Nafarroan, Galizian, Balearretan, Aragoian, Andaluzian eta Kantabrian. 2015ean jarri zuen martxan, eta bere sare komertzial osoan eskaintzen du.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



## **Maskarak 15 zentimoan**

Horretaz gain, EROSKI-k prezioa jaitsi die helduentzako eta haurrentzako maskara ez-berrerabilgarri guztiei, eta beste pauso bat eman du segurtasunaren aldeko konpromiso sendoan, kontsumitzaileei gaur egungo egoera zail honetan aurrezten lagunduta.

Helduentzako eta haurrentzako erabili eta botatzeko maskara higienikoek 15 zentimo balio dute orain, eta erabili eta botatzeko kirurgikoek (horiek ere helduentzat nahiz haurrentzat) 40 zentimo. 50 unitateko kutxetan datoz edo 10 unitateko poltsetan.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)